

«EMAKUME IKERLARIAK» PROGRAMA: EMAKUMEAK ZIENTZIAN SAREARI ATXIKITAKO ZENTROETAN EMAKUME DOKTOREGAI GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. EKONOMIA BULTZATZEKO DSS2022 PLANA

ATARIKOA

Donostia Sustapena SA (aurrerantzean, Donostia Sustapena edo Sustapena) Donostiako Udalaren garapen ekonomikoko sozietatea da eta, besteak beste, **hiriko garapen ekonomikoa eta soziala** bultzatzeko helburua du, bereziki, **kohesio** eta **jasangarritasuneko** irizpideei jarraikiz, hiriko eragileekiko **adostasunetik** eta **lankidetzatik**, eta nabariki **berrikuntzaren** aldeko apustua eginez, hiria eraldatzeko eredu gisa.

2011tik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori urtero martxan jartzeko tresna bat bereganatu dute: **Ekonomia Bultzatzeko Plana**.

Tresna hori dagoeneko finkatuta dago, goranzko bilakaera izan baitu eta ezarritako helburuak bete baitira; hala, tresna horri esker, hiriak toki-mailan eta mundu-mailan izan dituen zenbait erronka sozial eta ekonomikori aurre egin ahal izan diegu azken 10 urteotan, eta hiriaren lehiakortasuna eta posizionamendua hobetu da.

COVID-19aren pandemiaren intzidentzia handiak markatutako 2021. urte gogorrean emaitza onak lortu ziren eta, orain, Donostia Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko beste Plan bat proposatu du 2022rako.

2022rako Plan berriak beste bide bati ekitea du helburu nagusi, aurrera egitea eta etorkizunari **pertsonetan** oinarritutako ekintzen bidez heltzea, **proiektu berritzaileen** garapena bultzatuz eta tokiko ekosistemako **eragile nagusiekin** sarean lan eginez, proiektu horien, talentuaren garapenaren eta **Donostiako hiriaren** beraren euskarri izan daitezzen.

Esparru horretan, 2021eko Planaren eragina aztertu ondoren, eta tokiko eragile sozioekonomikoekin hiriaren erronkak hitzartuta, hala tokiko mailari nola maila globalari dagokienez, gaur egungo nazioarteko egoerak markatzen dituen erronkak integratuz, Donostia Sustapenak Ekonomia Bultzatzeko 2022ko Plana proposatu du. Planak honako alderdi hauek lortzeko egiten du apustu eta lan:

- **Donostia kohesionatua**, laneko aukera berriak garatuz, arreta berezia jarrita zailtasun handienak dituzten taldeetan.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasuna hobetuko duten enpresa-proiektuak sustatuz.
- **Donostia zerbitzu-hiri gisa**, kalitatezko merkataritza-ehun berritzaile baten alde eginez.
- **Donostia zientzian eta berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoko eredu gisa.
- **Donostia hiri-eraldaketako** prozesu berritzaileen **laborategi hiri gisa**.

Bost ardatz horien bidez, Donostia Sustapenak lehiakorrago eta berritzaileago bihurtu nahi du hiria, baina baita sozialago, irekiago eta kohesionatuago ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredu bat indartzeko.

Horretarako, zientziaren eta berrikuntzaren alde egiten duen hiri kohesionatu baten adibide gisa, Donostia Sustapenak, Emakumeak Zientzian Sarearekin lankidetzan, Donostiako hainbat ikerketa- eta teknologia-zentrotan emakume gazteen karrera zientifikoa sustatzeko laguntza hauek proposatu ditu.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Emakume doktoregai gazteak Emakumeak Zientzian sareari atxikitako hiriko ikerketa- eta teknologia-zentroetan kontratatu ditzaten sustatzea.

Hala, ikerketa-profiletan giza kapitala indartzeko eta, zehazkiago, emakume gazteen garapen profesionala ahalbidetzeko, estrategikotzat jotzen da emakume doktoregaiak ikerketa- eta teknologia-zentroetan sartzeko laguntza ematea kontratuaren lehen 3 urteetan. Gainera, emakumeek gainbegiratuak dituzten kontratazioak bultzatuko dira, bai hasierako etapetan, bai etapa aurreratuetan (senior postdoc/junior GLs).

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak EHUN MILA EURO (100.000,00 €) bideratuko ditu Emakume Ikerlariak programara.

Donostia Sustapena SAK zenbateko hori aldatzeko eskubidea izango du, egoki iritziz gero.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduna izango da laguntza emateko oinarria izan den jarduera egin behar duen pertsona oro, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoera batean dagoen oro, baldin eta une oro betetzen baditu oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak eta, zehazki, laguntza mota bakoitzari buruzko baldintzak.

Baldintzaren bat galtzeak edo horietakoren bat ez betetzeak onuradun izaera galtzea ekar dezake, eta ezin izango ditu eskatutako laguntzak eskuratu.

Laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisiko zein juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, nazionalak nahiz atzerrikoak, eta baita aurreko nortasun horiek ez dituzten elkarteak ere, baliozko moduan eratu badira ordenamendu juridikoaren arabera, eta oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Kanpoan uzten dira ondare-sozietateak, 2/2014

Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 14. artikuluan definitu bezala.

Oinarri hauetan ezarriko da zer baldintza bete behar diren dagozkion laguntzak eskatzeko eta horiek egiaztatzeko. Dena dela, Dirulaguntzen Lege Orokorra (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da betiere eta, ondorio horietarako, aplikatu beharrezkotzat adierazten da lege hori.

Ezingo zaie laguntzarik eman pertsona fisiko edo juridiko hauei:

- Indarrean dauden xedapenek zergen eta gizarte-segurantzaren arloan ezarritako betebeharrak egunean ez dituztenak.
- Epai irmoz zehatu direnak eta, ondorioz, dirulaguntzak eta/edo laguntzak jasotzeko aukera galdurik dutenak, edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku batean erortzen direnak, sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik zehatu direnak barne, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakume eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak dituztenak.
- Aurrez emandako laguntzak guztiz edo zati batean itzuli gabe dituztenak, itzuli beharreko kopurua benetan itzuli dela egiaztatu ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten ez badu; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei prozedura hau ebazteko eta ordaintzeko informazio hau:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historikoa
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak.
- Errolda agiria

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte laguntzen deialdi honetan parte hartzeko:

- a) Onuraduna Emakumeak Zientzian sareko kide izatea eta haren lantokia Donostiako udal-mugartean egotea.

- b) Tokiko proiektu berritzaileak, I+G+B arlokoak eta/edo jarduera berritzaileak gauzatzeko proiektuak aurkeztea. Tokiko proiektu berritzaileak, I+G+B arloko proiektuak eta/edo jarduera berritzaileak gauzatzeko proiektuak joko dira ezagutzarekin, zientziarekin eta berrikuntzarekin zerikusia dutenak.
- c) Laguntza hauen onuraduna irabazizko jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen pertsona fisiko bat edo pertsona juridiko bat izatea.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa HOGEI MILA (20.000,00) EUROkoa izango da, kontratuaren lehen 3 urteetako kontratazioa eta lanaldiaren % 100ekoa estaltzeko, honela banatuta:

- 1. urtea: 8.000,00€
- 2. urtea: 6.000,00€
- 3. urtea: 6.000,00€

Kontratazio bakoitzean ordaindu beharreko laguntzen azken zenbatekoa enpresak benetan jasan eta ordaindu dituen diruz laguntzeko moduko gastuen benetako kostuaren % 100 artekoa izan daiteke.

Aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin zuzenean lotutako gastuak lagunduko dira diruz, hau da: **soldata** (dieteren kontzeptua kanpo) eta **enpresaren konturako gizarte-segurantza**.

Onuradun bakoitzeko gehienez ere bi laguntza eman ahal izango dira, salbu eta, justifikatutako arrazoiengatik, Donostiako Sustapenak bestelako xalotasunik ezartzen badu.

Programa honen bidez kontratatu direnek Tokiko gazteentzako egoitzen programa pilotuan parte hartzeko eskatu ahal izango dute, baldin eta, programa honetako betekizunak betetzeaz gain, programa horretan adierazitako betekizunak betetzen badituzte.

6. ARTIKULUA. KONTRATAZIOEN BETEKIZUNAK

Kontratutako pertsonen gutxieneko betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) **Kontratatzeko unean 30 urte baino gutxiago** dituzten **emakumeak** izatea.
- b) **Eskatzen den gutxieneko titulazioa** izatea, 99/2011 Errege Dekretuak, urtarrilaren 28koak, doktoretzako ikasketa ofizialak arautzen dituenak ezarritakoari jarraikiz.
- c) **Donostian erroldatuta egotea**, gutxienez, lan-harremana hasi aurreko egunetik aurrera. Gutxienez lan-harremana hasi den egunean eta aurrekoan Donostian erroldatuta zeudela egiaztatzen dutenak soilik izango dira baliozkoak. Kontratatuak

ezingo du egon erroldatuta erakunde kontratatzailearekin (onuraduna) edo harekin lotutako beste edozein erakunderekin 2/2014 Foru Arauaren (Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua) 42. artikuluan jasotako moduan loturaren bat duen edozein pertsonaren etxean. Era berean, eta baldintza hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko kontratatu beharreko pertsonak aldeztatik Donostian izan dituen eta edozein arrazoiengatik eten diren erroldatzeak.

- d) Kontratatutako pertsona ez izatea onuradunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean arabera), aurrekoa, ondorengoa edo bigarren graduako alboko ahaidea (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke), eta ez izatea onuradunarekin lotutako pertsonatzat jotzen denetako bat, 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak bere 42. artikuluko 3. apartatuan ezartzen duenaren arabera.

Lan-kontratazioek 103/2019 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, eta 14/2011 Legea, ekainaren 1ekoa, Zientziari, Teknolari eta Berrikuntzari buruzkoa bete beharko dituzte, baita honako baldintza hauek ere:

- a) **Doktoretza aurreko kontratu** bat izatea.
- b) Lan-kontrata **2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean** hasiera (lan-kontratuaren hasiera-data), arrazoi justifikatuak direla medio Donostia Sustapenak berriaz beste hasiera-data bat baimentzen badu izan ezik. Ebazpen-eparearen barruan egin ez diren kontratazioetarako gehieneko epea **bi hilabetekoa da, laguntzaren ebazpena ematen den datatik zenbatzen hasita**. 2022ko azaroaren 1aren ondoren emandako ebazpenen kasuan izan ezik; halakoetan, gehieneko epea 2022ko abenduaren 31ra mugatuko da, arrazoi justifikatuak direla medio Donostia Sustapenak berriaz beste hasiera-data bat baimentzen badu izan ezik.
- c) Kontratuak **3 urteko edo gehiagoko iraupena izango du, eta urteko kontratuak eta ondorengo luzapenak izan daitezke. Lanaldia %100ekoa** izango da.
- d) Kontratazioa kontratatu den aldi osoan eta lanaldi motan mantendu beharko da.

Arrazoi objektiboak edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla medio, lan-harremana 3 urte igaro baino lehen amaitzen bada, Sustapenak kontratu-harremanaren iraupenaren zati proportzionala ordaindu ahal izango du.

- e) Kontratatutako pertsonak proiektuari egokitutako hasierako harrera jasoko dute Emakume Ikerlariak programaren erakunde onuradunaren barruan, eta erakunde onuradunak bermatu beharko du hori. Harrera-plan horren barnean, proiektuaren iraunkortasunari buruzko prestakuntza-pilula bat emango da.

Donostia Sustapenak beste edozein dokumentazio edo informazio osagarri eskatzeko eskubidea izango du, aurreko baldintzetako edozein betetzen dela egiaztatze aldera.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERATZEA.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira estatuko, Europako nahiz nazioarteko administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek helburu berarekin emandako beste edozein laguntzarekin, baldintza hauek betetzen badira:

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek *de minimis* laguntzei buruzko arauak beteko dituzte: arau horiek 1407/2013 (EB) Erregelamenduak ezartzen ditu, Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18koak, *de minimis* laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen gainekoak (2013ko abenduaren 24ko EBAO).

Oinarri honetan adierazitakoaren arabera jaso den laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, laguntza hori bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin batera harturik.

8. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHARREKO ESKAERAK ETA AGIRIAK.

Oinarri hauen iragarkia **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta laguntza honetara bideratutako baliabide ekonomikoak agortzen direnean amaituko da** (hala bada, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da), edo, **bestela, deialdia ixten denean, hots, 2022ko Urriaren 30ean.**

Eskabidea egiteko epea amaitu ondoren, soberakinik badago edo zuzkidura ekonomikoa handitu bada, eta Donostia Sustapenak hala irizten badio, eskaera egiteko epea luzatu ahal izango du oinarri hauek aldatuz (kasu horretan, dagokion kanaletan argitaratuko da).

Eskabideak telematikoki soilik aurkeztu ahalko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bitartez (www.fomentosansebastian.eus).

Salbuespen gisa, eta behar bezala justifikatuta dagoenean, eskabidea Donostia Sustapenaren ataritik egitea ezinezkoa bada, eskabidea egiteko ordezkari bide bat zabalduko da, Sustapenak baimena ematen badu, betiere.

Eranskinak osorik bete behar dira eta behar bezala sinatuta egon beharko dute. Sinatu beharreko dokumentazio erantsia digitalki sinatu beharko da.

Edozein informazio jasotzeko edo kontsulta egiteko, 943 48 28 00 telefonora deitu edo fomentoss@donostia.eus helbidera idatzi, gaien honako hau jarrita: «Emakume Ikerlariak Laguntzak»

Donostia Sustapenaren webgunean adierazten da publikoari arreta emateko ordutegia.

Dagokion eskabide inprimakiarekin batera, eskatutako dokumentazio administratibo guztia erantsiko da, bai eta dokumentazio teknikoa eta ekonomikoa ere.

Administrazio-agiriak:

- a) **Eskabide-orria** («Eskabidea» eranskina).
- b) Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen «**Banku-datuen eranskina**», dagokion banku-erakundeak zigilatuta, edo banku-erakundeak behar bezala zigilatutako banku-agiri baliokidea.
- c) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, haren **NANaren** kopia.
- d) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, haren **IFKren** kopia eta, hala badagokio, ahalduaren NANA.
- e) **Emakumeak Zientzian Sareko** kidea izatearen egiaztatzea.

Onuradunaren erantzukizuna izango da egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentuak egiazkoak izatea.

Interesdunek 2018az geroztik Donostia Sustapenaren laguntza-programaren batean parte hartzeko halako dokumenturen bat aurkeztu badu, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatutako dokumentazioa berriz aurkeztea, oraindik indarrean badago eta datuak aldatu ez badira.

Dirulaguntzaren eta ordainketen eskaera egitean Udal Zerga-bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek betebeharrak hori egunean dutela egiaztatu beharko dute.

Dokumentazio teknikoa

Txostenean, gauzatuko den ikerketa-proiektua deskribatuko da. Informazio teknikoa eta ekonomikoa jasoko du, eta proiektuaren diseinu orokorra erakutsi beharko du (faseen garapena, zereginak, arduradunak, kronograma, emaitzaren adierazleak) eta argi eta garbi adierazi zer egoeratan dagoen. Txostenak, gutxienez, atal hauek izan beharko ditu («Txosten teknikoa» eranskina):

1. Proiektuaren izenburua.
2. Proiektuaren deskribapen laburra eta kontratatutako pertsonak bete beharreko helburuak, bai eta kronograma eta espero diren emaitzak ere.
3. Sortutako enplegu-aukeraren deskribapena: pertsonaren profila, kontratuaren iraupena, harrera, jarraipena, barne-garapena.
4. Lan-taldea eta kontratatutako pertsona gainbegiratuko duen pertsonaren profila
5. Proiektuak hiriko ildo estrategikoekin eta sustatutako sektore estrategikoekin duen lotura azaltzea.

Txostena sinplea eta argia izango da, ulermena errazteko, eta ez da erabiliko proiektuaren ulergarritasuna desitxuratzen duen teknizismorik. Informazio zehatza izango du 10.artikulan aipatutako proposamenak baloratu ahal izateko.

Onuradunaren erantzukizuna izango da egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentuak egiazkoak izatea.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, Donostia Sustapenak bete gabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten badu, berariaz adieraziko da zer falta den eta hamar egun balioduneko epean akats hori zuzentzeko edo behar diren eta entregatu ez diren dokumentuak eransteke eskatuko dio eskatzaileari, eta hala egin ezean eskabidea beste izapiderik gabe baztertuko dela adierazi eta dagokion ebazpena emango du. Administrazio-agiriak eta laguntza honen dokumentazio espezifikoak zuzentzeko aukera emango da. Gainera, egoki irizten dionean, Donostia Sustapenak eskubidea izango du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako edozein agiri edo informaziori buruz egokitzen jotzen dituen argibide guztiak eskatzeko.

Onuradunak harremanetarako helbide elektronikoa gisa eman duen posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dira zuzenketak. (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web-aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Hasierako eskabidea zer kanaletatik egin zen, kanal hori erabiliko da zuzentzea eskatu den dokumentazioa aurkezteko ere. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Dirulaguntzak Donostia Sustapenak berariaz egindako ebazpen bidez eman edo ukatuko dira, oinarri hauek ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzen diren edo ez kontuan hartuta, eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN IZAPIDEA ETA EBAZPENA

Eskaerak sarrera-erregistroko agindu bidez ebaluatuko eta ebatziko dira, dirulaguntzara bideratutako erabilitako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Oinarriari jarraikiz aurkeztutako proiektu guztiak aurkeztutako dokumentazio teknikoaren arabera ebaluatuko dira. Proiektu bat onartzeko, argi eta garbi identifikatu beharko da I+G+B proiektu bat dela.

Ez dira kontuan hartuko argi eta garbi I+G+B arlokoak ez diren proiektuen eskabideak.

Emakumeek gainbegiratu dituzten ikasleen kontratazioak bultzatuko dira, bai hasierako etapetan, bai etapa aurreratuetan (senior postdoc/junior GLs).

Donostia Sustapena eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, proiektua behar bezala ulertu duela egiaztatzeko.

Eskatutako laguntzari buruzko ebazpena emateko epea bi (2) hilabetekoa izango da, eskabidea erregistratzen den egunetik hasita zenbatzen. Epe horren barruan ez dira sartuko administrazio-agiriak zuzentzeko emandako epeak. Laguntza emateari buruzko ebazpena adierazitako epearen barruan ez egiteak ez du esan nahi laguntza eman denik.

Eskabideari buruz ebazteko unean, Donostia Sustapenak aurkeztu den nahitaezko dokumentazio guztia aztertuko du. Dirulaguntza ebazteko, ez da beharrezkoa izango eskatu gabe aurkeztutako beste edozein dokumentu aztertzea.

Dirulaguntza Donostia Sustapenak berariaz egin eta arrazoitutako ebazpen bidez eman edo ukatuko da, oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzen diren edo ez kontuan hartuta.

Ebazpenak posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, Eskabidearen eranskinean adierazitako «Jakinarazpenetarako Helbide Elektronikora»; halaber, web-aplikazioan ikusi ahalko dira, espedientearen barruan, eta onuradunen zerrendak argitaratuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamenduak, 2013ko abenduaren 17koak, bere 115. artikuluko 2. apartatuan jasotako zerrenda publikoan.

Eskatzailea ez badago ados emandako ebazpenarekin, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena eman den egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko du, eta hark izapidetzeko egin beharreko prozeduren berri emango dio. Donostia Sustapenak adierazitakoa beteko da eta, hala badagokio, bi alderdiak Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira.

11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat onartuko da, oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari erantzuten diona, oinarri hauetan ezarritako epearen barruan egin bada. Diruz lagundu daitezkeen gastuen erosketa-kostua ezingo da izan, inola ere, merkatuko balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei DLOren 31. artikulua aplikatuko zaie: esanbidez igortzen da artikulua horretara.

Onartutako egiaztagiraren zenbatekoa jadanik egin diren ordainketena baino txikiagoa bada, dagokion zatia itzultzeko eskatuko da.

12. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Dirulaguntza honela ordaindu eta justifikatuko da:

- Lehenengo ordainketa, kontratuari buruzko dokumentazioa aurkeztu ondoren; lehen

- urteari dagokion zenbateko osoa ordainduko da: 8.000 €.
- Bigarren ordainketa, lehenengo urtean lanpostua mantentzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren: 6.000 €.
- Hirugarren ordainketa, bigarren urtean lanpostua mantentzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren: 3.000 €.
- Laugarren ordainketa, hirugarren urtean lanpostua mantentzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren: 3.000 €.

LEHEN ORDAINKETAREN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Laguntza ebazteko eguna baino lehen egindako kontratazioek **hilabeteko gehieneko epea** izango dute aipatutako dokumentazioa aurkezteko, ebazpen hori ematen den egunetik kontatzen hasita.

Laguntza ebazteko egunaren ondoren egindako kontratazioek **hilabeteko gehieneko epea** izango dute aipatutako dokumentazioa aurkezteko, **kontratazioaren egunetik kontatzen hasita**.

Onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du lehenengo ordainketarako:

Lehenengo ordainketa dokumentazio hau aurkeztu ondoren egingo da:

1. «**Kontratazio-datuak**» eranskina.
2. **Lan-kontratuaren kopia**, agiri osoa eta bi alderdiek sinatua, honako betekizun hauek egiaztatzeko: iraupena, lanaldia, lantokia, beteko duen lanpostua eta ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
3. **Lan-kontratuaren berri ematea**
4. Kontratutako pertsonaren **NANaren** edo **AlZaren** kopia.
5. **Langilearen** Gizarte Segurantzako **laneko bizitza osoa**, laguntzaren xede den kontratua hasi ondoren emana.
6. Kontratutako pertsonaren **Curriculum Vitaea**.
7. Kontratutako pertsonaren **titulazio akademikoa**.

BIGARREN ORDAINKETAREN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Bigarren ordainketa kontratazioaren lehen urtea justifikatu ondoren egingo da. Kontratua hasi zenetik 12 hilabete igaro ondoren, **gehienez ere bi (2) hilabeteko epea egongo da justifikazioa aurkezteko**.

Onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du bigarren ordainketarako:

1. Eranskina: «Justifikazioa», barne hartuta lehen urteko kontratazioaren benetako kostuaren ziurtagiri bat.
2. Programaren bidez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren bilakaera deskribatzen duen txostena («Txosten Teknikoa» eranskina)
3. Kontratutako pertsonaren «Afiliatu baten lan-bizitzaren txostena» dokumentua, laguntzaren xede den aldian eta lanaldian enpresan aritu dela egiaztatzen duena.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

Dirulaguntzaren eta ordainketen eskaera egitean Udal Zerga-bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek betebeharrak hori egunean dutela egiaztatatu beharko dute.

Justifikatzeko ezarri den epea igarota, ez bada dagokion dokumentazioa aurkeztu, Donostia Sustapenak dokumentazio hori aurkezteko eskatuko dio onuradunari, eta jakinarazpena egin denetik 15 eguneko epea izango du horretarako, gehienez ere. Epe berri hori igarota, ez bada aurkeztu dagokion dokumentazioa, laguntza atzera bota dela ulertuko da eta, hortaz, kobratzeko eskubidea galduko da edo, hala badagokio, jasotako zatia itzuli beharko da.

HIRUGARREN ORDAINKETAREN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Hirugarren ordainketa kontratazioaren bigarren urtea justifikatu ondoren egingo da. Kontratua hasi zenetik 24 hilabete igaro ondoren, **gehienez ere bi (2) hilabeteko epea egongo da justifikazioa aurkezteko.**

Onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du hirugarren ordainketarako:

1. Eranskina: «Justifikazioa», barne hartuta bigarren urteko kontratazioaren benetako kostuaren ziurtagiri bat.
2. Programaren bidez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren bilakaera deskribatzen duen txostena («Txosten Teknikoa» eranskina)
3. Kontratututako pertsonaren «Afiliatu baten lan-bizitzaren txostena» dokumentua, laguntzaren xede den aldiaren eta lanaldian enpresan aritu dela egiaztatzen duena.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

Dirulaguntzaren eta ordainketen eskaera egitean Udal Zerga-bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek betebeharrak hori egunean dutela egiaztatatu beharko dute.

Justifikatzeko ezarri den epea igarota, ez bada dagokion dokumentazioa aurkeztu, Donostia Sustapenak dokumentazio hori aurkezteko eskatuko dio onuradunari, eta jakinarazpena egin denetik 15 eguneko epea izango du horretarako, gehienez ere. Beste epe hori igarota, ez bada aurkeztu dagokion dokumentazioa, laguntza atzera bota dela ulertuko da eta, hortaz, kobratzeko eskubidea galduko da edo, hala badagokio, jasotako zatia itzuli beharko da.

LAUGARREN ORDAINKETAREN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Laugarren ordainketa kontratazioaren hirugarren urtea justifikatu ondoren egingo da. Kontratua hasi zenetik 36 hilabete igaro ondoren, **gehienez ere bi (2) hilabeteko epea egongo da justifikazioa aurkezteko.**

Onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

1. Eranskina: «Justifikazioa», barne hartuta hirugarren urteko kontratazioaren benetako kostuaren ziurtagiri bat.
2. Programaren bidez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren bilakaera deskribatzen duen txostena («Txosten Teknikoa» eranskina)
3. Kontratututako pertsonaren «Afiliatu baten lan-bizitzaren txostena» dokumentua, laguntzaren xede den aldian eta lanaldian enpresan aritu dela egiaztatzen duena.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

Dirulaguntzaren eta ordainketen eskaera egitean Udal Zerga-bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek betebeharrak hori egunean dutela egiaztatu beharko dute.

Justifikatzeko ezarri den epea igarota, ez bada dagokion dokumentazioa aurkeztu, Donostia Sustapenak dokumentazio hori aurkezteko eskatuko dio onuradunari, eta jakinarazpena egin denetik 15 eguneko epea izango du horretarako, gehienez ere. Beste epe hori igarota, ez bada aurkeztu dagokion dokumentazioa, laguntza atzera bota dela ulertuko da eta, hortaz, kobratzeko eskubidea galduko da edo, hala badagokio, jasotako zatia itzuli beharko da.

13. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak onartuko dituzte, eta, ondorio hauetarako, berariaz adierazten da artikulua hori aplikatzeko dela. Besteak beste, betebeharrak hauei egiten zaie erreferentzia (adibide gisa aipatzen dira, horietara mugatu gabe):

- a) Jasotako laguntza diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.
- b) Donostia Sustapenak berariazko kontrakoa egiteko baimena eman ezean, aurkeztutako proiektuaren baldintza eta zereginak eta kontratatutako pertsonak proiektu eta zeregin horiekin duen lotura errespetatu eta betetzea.
- c) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko behar den dokumentazioa ezarritako moduan eta epean aurkeztea.
- d) Jasotako laguntzen aplikazioa frogatzeko agiriak gordetzea, egiaztatzeko nahiz ikuskatzeko jarduketak egin daitezkeen bitartean eta, nolana ere, aplikatzeko den araudiak ezarritako epean.
- e) Proiektuak barnean hartzen dituen jardueretako gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilitatean sartzeari.
- f) Kontabilitateko liburuak egoki eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

- h) Dirulaguntza onartzeko garaian kontuan hartutako edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea Donostia Sustapenari, inguruabar horretatik 15 egun naturaleko gehieneko epean.
 - i) Donostia Sustapenari bere eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia ematea, emandako dirulaguntzei dagokienez.
 - j) Donostia Sustapena aipatzea laguntza honen zati baten finantzatzaile gisa (15. artikuluari jarraikiz) laguntzen xede diren proiektuak sustatzeko eta jendarteratzeko jardueretan, erabilitako komunikazio-euskarriei (web-orriak, kartelak, posta-zerrendak...) irudi instituzionala eta dagokion legenda erantsiz.
 - k) Kontratututako pertsonari jakinaraztea diruz lagundutako kontratazioa Donostia Sustapenak finantzatu duela eta kontratatutako pertsonari buruz behar diren datuak biltzen laguntzea.
 - l) Donostia Sustapenak laguntza hauen xede diren jardueren jarraipena egiteko antolatutako bilera guztietara joatea.
 - m) Donostia Sustapenak jaso den laguntzarekin lotuta antolatzen dituen jardunaldietan parte hartzea, halakorik antolatzen badu (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, eta abar).
 - n) Beharrezkoa bada, Donostia Sustapenari finantza-kontrola eta ikuskaritza egiteko jardueretan laguntzea, eta eskatzen dituen informazio eta agiri guztiak jartzea haren eskura.
 - o) Diruz lagundu daitekeen jarduera egiteko beharrezko diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
 - p) Oinarri hauen 3. eta 4. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea.
 - q) Helburu eta aldi berberetarako lortu diren beste dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Donostia Sustapenari.
 - r) Donostia Sustapenari baimena ematea onuradunen harremanetarako datuak, jarduera, izen komertziala, logotipoa, marka eta trafiko ekonomikoan erabilitako beste edozein ikur bereizgarri bere enpresen eta I+G+B agenteen direktorio digitaletan argitaratzeko. Horretarako, onuradunak elementu horien gaineko ustiapen-lizentzia emango dio Donostia Sustapenari, adierazitako helburu horietarako soilik, eta adostasunez erabili ahal izango duela bermatuko du.
 - s) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio-euskarrietan (webgunea, sare sozialak, posta-zerrendak, megafonia, eta abar) eta sustapen eta hedapeneko materialak argitaratzean, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, eta beste.
- Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuari testuak itzuli eta zuzentzeko (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira. ([Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es](http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es))

14. ARTIKULUA. DIRUA ITZULTZEA

Kasu hauetako edozeinetan, pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jaso duen dirulaguntza itzuli beharko du, diruaren legezko interesa gehituta (emandako diru kopuruak ordaindu diren unetik aurrera):

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak urratzen baditu, larriki eta/edo behin eta berrero. Urratze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentazioen bat faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat aurreikusitakoez bestelako helburu baterako erabiltzea.

Laguntzaren helburua oinarri hauetan ezarri bezala justifikatzeko betebeharra urratzen badu, edo justifikazioa aski ez bada.

Onuradunaren jarduera egiaztatzeko eta ikuskatzeko egiten diren jardueri aurka egin, aitzakiak edo oztopoak jarri edo uko egiten badie, eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak betetzen ez baditu, eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenak zertarako erabili diren, finantzatutako jarduerak egiaz eta erregularatasunez egin diren, edo helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik jaso den, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutik.

- Jarduerak gehiegizko finantzaketa jaso badu, gainfinantzatutako zenbatekoa itzuli beharko du.
- Objektibotzat jotzen ez diren edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik kontratua desegitea.

Aurrekoa kontuan hartuta, laguntza hauek jasotzeko betekizunak bete eta une oro mantendu beharko dira. Osterantzean, Donostia Sustapenak dirulaguntzak itzultzeko eska dezake, aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzetan. Era berean, urratze-kasu larriagoetan, esaterako, datu faltsuak aurkezten badira edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzen bada, Donostia Sustapena SA sozietateak eskubidea izango du emandako laguntza deuseztatzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzul daitezten eskatzeko, bai eta jasotako zenbatekoa halako bost ordain dadin eskatzeko ere.

Jasotako laguntza itzuli egin beharko da, jarraian deskribatutako baldintzetan, Donostia Sustapenak oinarri hauetan ezarritako kausaren bat gertatu dela egiaztatzen badu eta onuradunari hala jakinarazten badio.

Dirua laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean itzuli beharko da, Donostia Sustapena SAK onuradunari artikuluko honetan dirua itzultzeko aurreikusitako kausaren bat dagoela burofaxez bidaltzen dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Donostia Sustapena SAK eskubidea izango du, BI (2) URTEKO epean, Donostia Sustapena SAK eskainitako beste edozein laguntza edo onura lortzeko aukera eragozteko edozein pertsona fisiko edo juridikori, baldin eta oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez badute edo fede onaren funtsezko arauak urratzen dituzten jokabideak izan badituzte.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA.

Datuen babesari buruz indarrean den araudian ezarritakoarekin bat etorriz, oinarri hauetan erregulatutako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie fitxategi batean sartuko direla dagokion eskabidearen bitartez eman dituzten datu pertsonalak, baita laguntzak onartu ondoren horien izapidean eta/edo kudeaketan aurkeztutako beste edozein dokumentazio ere, Donostiako Udalak tratatu ditzan (tratamenduaren arduradun gisa jardungo du) eta Donostia Sustapenak kudea ditzan (tratamenduaren eragile gisa jardungo du). Tratamenduaren helburua aipatutako laguntzen eskaera kudeatzea eta izapidetzea izango da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria 2016/679 (EB) Erregelamendua da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, pertsonen datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez (DBEO) eta, zehazki, 6.1.e) artikuluan ezarritakoa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren onerako edo tratamenduaren arduradunari esleitu zaizkion botere publikoak erabiltzean egindako misio bat betetzeko. (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriena; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra).

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide-orrietan hala adierazten denean, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa ematea, eta datu horiek ematen ez badira edo datu okerrak ematen badira ezinezkoa izango da eskabidea kudeatzea.

Datu horiek zertarako bildu ziren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, baita helburu horren eta datuen tratamenduaren ondorioz erator litezkeen erantzukizunak zehazteko ere.

Beharrezkoa denean, eta laguntzen emakida kudeatzeko soilik, estatuko eta estatuz gaindiko beste erakunde batzuei laga ahal izango zaizkie oinarri hauetan erregulatutako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak, erakunde horiek laguntzen finantzakide badira eta/edo Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzen badira laguntza horiek kudeatzeko.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emanez gero onuradunaren identifikazio-datuak komunikatu edo lagako direla, argitaratu egingo baitira, emandako zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web orrian eta, laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean edo, zenbatekoa edozein dela ere, galdagarria denean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Ukitutako pertsonak datuetara sartzeko eta datuak zuzendu nahiz ezabatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, baita datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubideak ere, bidezkoa denean. Horretarako, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzura jo dezake (Easo kalea 41, 20006 Donostia).

Eskubideak erabiltzean ez badute arreta egokia jaso, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkez dezakete. Helbidea: Tomas Zumarraga dohatsuaren kalea, 71 – 3. solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz. Dena dela, lehen instantzian, Donostiako datuak babesteko ordezkariarengana jo dezakete erreklamazioa jartzeko: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, jakinarazten da ezen, dagokion eskabidea aurkeztuz, eskatzaileak berriaz baimentzen dituela aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondoriozko datu-komunikazioak edo -lagapenak.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA.

Indarrean jartzea eta nire onestea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskabidea aurkeztuta, interesdunek guztiz onartzen dituzte oinarri hauek.

Erantzukizunetik salbuestea.

Diruz laguntzen den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz edo jardueraren beraren ondorioz kalte pertsonal eta/edo materialik eragiten bada, onuraduna izango da horien erantzule bakarra; beraz, Donostia Sustapenak ez du izango kontzeptu horien gaineko erantzukizunik inola ere.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Emandako laguntzetan, oinarri hauetan jasotako arauak eta, osagarri gisa, DLOan eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, DLOaren Erregelamendua onartzen duenak –aurrerantzean, DLOE– onetsi zuen) jasotako arauak aplikatuko dira, baina DLOan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatutako informazio-arlokoiei dagokienez soilik; hori guztia, 3.2 artikuluko bigarren paragrafoa betez (hor zehazten da aplikazio hori).

Bestela, oinarri hauetan berriaz aipatzen direnean soilik aplikatuko dira aipatutako DLO eta DLOE arauak.

Donostian, 2022ko Uztailaren 11an

Marisol Garmendia Beloqui

Ekologia eta Osasun Publikoko eta Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria